

Kaidera urdina

Noiz lantzeko : Pazkotik landa.

Zentako libürü horren haütatüa

- Hurrek Boujon maite düelakoz ;
- Haurrak bizitzen düan egoera batetan beigira (kaidera) eta üdüripena garatzen beita ;
- Testo bizia (alkarrizketa), simple bena aberatsa ere bai ;
- Ttittadüra aberatsa ;
- Iduri arruntak bena ederrak eta argiak ;
- Beste üsatüzko aipaldietarik ezbardina, elementü irauzlea azkenik agertzen beita

1.saioa : Libürüaren presentatzea + irakurketan 4-7 orr.

Titülüa gordatzez, libürüaren presentatze eta ezagützaren egitea (objet livre) :

- libürüaren lehen eta azken axala (première et quatrième de couverture)
- idazlea eta marrazakigilearen izenak (oharra : izen bat baizik ez da, ondorioz ber jenteak biak egin)
- Axalaren irudiak soegin : 2 jenteen soak (zer manieraz so dira) eta kaidera (laugerrenean, kaidera bat baizik ikusten dügü)
- Titülü ezbardin elibat ediren, haütüa esprikatüz. Egiazko titülüari soegin eta parekatü : idazlearen haütüa gogozkatü.
- ‘Page de garde’ delakoa, axaletik ezbardin : ikus zer ezbardintarzün baden (irudi ezabardinak, argitaletxearen izen eta helbideak).

4.-7.or :

Egün hartan Zakarnika eta Koskerdi basabörtüan ibiltan ziren . “Ez da jente hanitx » erran züan Zakarnikak.. “basabörtüan bezala” murmuzikatü züan Koskerdik, beti xehetarzünez gose. “Ah ! bada zerbait berri” oihukatü züan Zakarnikak, tona urdin bat hürrünean erakatsiz .	<u>Hiztegia :</u> ‘egün hartan’: xehetarzün gabeko hitza bena egintza iraganean finkatzen dü. <u>Irakurketa :</u> • <i>Marrazkia</i> : tona urdin bat agrtzen da (7.or.) • <i>Testoa</i> : a) personajeen izenak agertzen dira bena ez dakigü nor nor den (4.or.) b) Nola jakin nor den Zakarnika eta nor den Koskerdi (7.or) : xehetarzünak testoon dira ‘hürrünean erakatsiz’ eta irudian ikusten da erhi bat erakasten ari. Bi personajeen artean jokü bat bada : bat ez da batere argi bere erranetan bestea aldiz xüxen eta argiago da. Beren erranek alkarrri egite badüe bena ez dira etsik berak.
--	---

2.saioa : 8.-11.or.

Hüllantü eta, kaidera bat atzaman züen. “Kaidera bat da” erran züan Zakarnikak. “Kaidera urdin bat da” gehitü züan Koskerdik...eta zale aterbe bezala baliatü züan.	<u>Zentzüaren ikertzea</u> -egoera bitxia : kaidera bat bada basabortüan ; kabaleak txütik dira – gizon beno kabaleago dira-, alegia batentako normal den gaüza bat da. <u>Hiztegia : ahozkoa lantü</u> ‘aterbe bat’ : ezagützen diren aterbeak oro ediren. <u>Ttittadüra</u> - : hiru püntüek alkarrizketa mozten düe eta erranaldiak ondoko orrialdean jarraikitzen dü. - Aditzjoküa : ikusi baliatürrik diren aditzak (oraina-iragana). Oraina eta iragana baliatürrik dira. Egintza egiten da elestatzeko momentüan (présent dans le récit, iragana da).
--	---

3.saioa : 12-15 or

« hori gütienik » erran züan Zakarnikak. « Kaidera lillüragarria da. Nahi den bezala baliatzen ahal da : txakür-lerra, sühiltzaileen oto, anbülantzia, lasterkaldi oto, helikoptero, hegazkin, errota gainean ibilgailü bat bezala edo hegaltza liratekean edozoin gaüza bat bezala...hur gainekeo tresna elibat bezala ere bai”. “Bena ordüan kasü üngürüan barandan ebiltzen diren marrazoer” gehitü züan Koskerdik, jokü hortan laketürrik.	- Irudiaren irakurketa baizik ez - Testoaren irakurketa « nahi den bezala baliatzen ahal da » : gelak proposamenak egiten dütü. Libürüan agertzen denarekin parekatzen da. - Bi personajeak jokü batetan sartzen dira : eskolan mimatzen ahal da jokü hori bai eta beste elkaldiak ere (libürüa esküetan). - Ttittadüra : 3 püntüak : erranaldia ez da ürrentürrik (2.saioaren ohartaraztea).
--	--

4.saioa : 16-21 or.

“Eta ez hori baizik” jarraiki züan Zakarnikak. “Ez bat eta ez bi, bulego bat, apal bat bestelakatzen da. Hola bezalakorik ez da saltzailearen joküan aritzeko.” “Bai” honartü züan Koskerdik, “kaidera bat, zinez gaüza lillüragarria da, bena hanitx erabilkorra ere. Gainera goiti joaitez, zure lagünik handiena bezain handia bilakatzen zira.....zure bürüa basaihizietarik zaintzeko ere balia dezakezü. Bide hoberena da basanimaliaren ez üzteko hezlearen jatera. Zirko ororetan ikusten da hori.”	<u>Hiztegia</u> : « ez bat eta ez bi » <i>Azalpena eman</i> : basanimaliak, hezlea, zirkoa. <u>Irakurketa</u> : lillüragarri/erabilkor : ‘bena’ hitzar esker eretzean ezarririk dira. <u>Ttittadüra</u> : hiru püntüak agertzen dira bena erranaldia ürrentürrik da : ideiaz kanbiatzen gira (hizki handia ediren).
--	---

5.saioa : 22-25 or

“eta zirkoetan”, jarraiki züan Koskerdik hasian hasi, “akrobatek ere esküketariak baliatzen dütüe beren ihakinen loragarrien egiteko. Holaxe”. Zakarnikak ez züan besteak beno gütiago izan nahi. “Eni da orai !! plomülariak ahazten dütük”, oihü egin zeion bere erranaren jestüekin frogatzen ari zelarik.	<u>Irakurketa</u> : ideiak herrokatzen dira, bata bestearen ondotik jiten dira : zerrendakatzea, idazlearen azalpenak, botz goratze (oihü egiten). Kaidera, txostagailü bat bezala bilakatzen da.
---	---

6.saioa : 25-35

Hortik ez hürrun, kamelü bat –ez da bitxi halako kabale baten ikusteaz basabortüan- bi lagünen ihakiner zorrozki so zen. Isil-isila hüllantü zen eta batbatetan oihü egin zeien : “bena бүрүтик joanik zireie ! zer dütüzüe tximinokeria horik ?” Bunp, tiribili-tarabala, joküa eküratü züen. “kaidera bat”, erran züan, “hartan jarteko eginik da”. Eta jargian ttottotü zen, hantik ez igitzeko gogorik gabe. “Goatzan”, erran zeion Zakarnikak bere lagünari, “kamelü honek ez dü batere üdüripenik”. “eta gainera ez da batere kamelü bat, konkor bat baizik ez beitü, dromadari bat da”, gehitü züan Koskerdik, beti xehetarzünez gose.	<u>Irakurketa</u> : irudier soegin eta komentatü. Sarkinaren sartzeak, joküa hausten dü. Hitz inportant bat, zentzü hanitx ükeiten ahal düana : <i>zirkoa</i> <u>Hürrünago joaiteko</u> : basabortüan, beste gaüza bat edireiten düe : zerrenda bat egin (ahozkoan) eta erran gaüza horrekin egiten ahal dena. (adibidez : erratza, üztaia, zakü bat, mihise bat....)
--	---